

Erref.- FMR / Legelari aholkularia

Proposamena: Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzako Giza Baliabideen Zuzendariordeztza

GAIA.- ERABAKI-PROPOSAMENA, BIZKAIKO GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEAREN (GUFE) 2022RAKO ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA ONARTZEKO DENA.

Azaroaren 7ko 16/1997 Legeak aldatutako Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 23. artikulua zehazten duenez, administrazio publiko bakoitzean dauden langileekin bete ezin diren giza baliabideen beharriak enplegu publikoaren eskaintzaren xede izango dira. Eskaintza horretan, bete behar diren plaza hutsak adieraziko dira, bai funtzionarioenak, bai lan-kontratuak langile finkoenak, lan-kategorien edo funtzionarioen talde, kidego eta eskalen arabera sailkatuta. Azkenik, aipatutako manuak adierazten du ezingo dela lanpostuak betetzeko hautaketa-probetarako deialdirik egin, baldin eta lanpostu horiek betetzea ez badago konprometituta enplegu publikoaren eskaintzan.

Lege-testu berean xedatzen denez, enplegu publikoaren eskaintzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, edo dagokion lurralde historikoko aldizkarian, foru-aldundiei edo toki-korporazioei badagozkie, eta horien laburpena EHAAn argitaratuko da.

2022rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legeak 20. artikuluan arautzen du enplegu publikoaren eskaintza edo langile-premien hornidura kudeatzeko antzeko beste tresna bat, eta batetik laugarrenera bitarteko apartatuak oinarritzko izaera ematen die, Konstituzioaren 149.1.13 eta 156.1 artikuluen babesean, 7. apartatuak ohartarazten duen bezala.

Horrela, bada, Bat.1 apartatuak adierazten du sektore publikoan harreman mugagabea duten langile berriak sartzeko, aurreko artikuluen Bat.e) apartatuan jasotako organoak izan ezik, artikulua horretan adierazitako irizpideen arabera arautuko direla, eta langileen berritze-tasa horien mende egongo direla (lehentasunezko sektoreetan ehuneko 120 izango da, eta gainerako sektoreetan ehuneko 110). Nolanahi ere, eskaintzak gastuen aurrekontuaren I. kapituluko aurrekontu-baliabideak bete beharko ditu.

Eta Bat.3 apartatuak eranstean du lehentasunezko sektoretzat jotzen direla, birjartze-tasaren ondorioetarako, besteak beste, e) azpiatala, Administrazio Publikoak aholkularitza juridikoari eta baliabide publikoen kudeaketari dagokienez; baita gizarte-zerbitzuetan herritarrei zuzeneko laguntza ematen dieten langileen plazei dagokiena ere; edo zerbitzu publikoetan herritarrei arreta ematen dieten langileei dagokiena – ñ) azpiatala –.

Langileen birjartze-tasa kalkulatzeko, gehieneko tasa baimenduaren ehunekoa aplikatuko zaio aurreko aurrekontu-ekitaldian zerbitzuak emateari utzi zioten langile finkoen kopuruaren eta aipatutako ekitaldian edozein arrazoiengatik sartu diren langile finkoen kopuruaren arteko



aldeari, edo lanpostuak erreserbatzea ez dakarten egoeretatik itzuli diren langileen kopuruaren arteko aldeari.

Ondorio horietarako, honako arrazoi hauek eragindako lanpostu-uzteak zenbatuko dira: erretiroa, heriotza, uko egitea, lanpostua gorde gabeko eszedentzia-egoera deklaratzeko, karrerako funtzionarioaren izaera galtzea edo lan-kontratua azkentzea, edo lanpostua gordetzea edo lanpostua uzten duen administrazioaren kargurako ordainsariak jasotzea ez dakarren beste edozein administrazio-egoera.

Era berean, kontuan hartuko dira beste administrazio publiko batzuetara lekualdatzeko lehiaketan ondoriozko altak eta bajak, bai eta artikulu horren Bost.3 apartatua eta hamazazpigarren, hemezortzigarren eta hemeretzigarren xedapen gehigarrien Bat.2 apartatua xedatutakoaren ondorioz sortutakoak ere, kasuan kasuko sektorean alde aurreko harreman finko eta mugagabea duten langileen mugikortasunari dagokionez.

Unibertsitateko irakasleen kidego batean sartzearen ondorioz hutsik geratzen diren irakasle kontratatu doktoreen plazak hurrengo ekitaldiko birjartze-tasan sartu ahal izango dira.

Aurreko zenbakiko arauen ondoriozko tasa indarreko ekitaldian erregistratutako alta eta baje ondoriozko tasarekin handitu ahal izango da, eskaintza onartu arte, eta hori eskaintzan bertan jaso beharko da. Horretarako, eskaintza ekitaldiko lehen seihilekoan onartu beharko da. Plaza horiek hurrengo ekitaldiko birjarpen-tasatik kenduko dira.

Hautaketa-prozesu horien artikulazioak lehia askearen, berdintasunaren, merezimenduaren, gaitasunaren eta publikotasunaren printzipioak betetzea bermatuko du beti, eta Estatuko Administrazio Orokorraren, autonomia-erkidegoen eta toki-entitateen lurralde-eremu bakoitzean negoziatu ahal izango da. Halaber, prozesu horien garapenean administrazioen arteko koordinazioa ahalbidetuko duten neurriak artikulatu ahal izango dira. Prozesu horiek ebaztearen ondorioz ezin izango da, inola ere, gastua edo langileak gehitu, eta prozesu horietan nahitaz eskaini beharko dira aldi baterako lotura duten langileek betetzen dituzten egiturazko lanpostuak.

Bestalde, Bi apartatua, artikulu horretako Bat apartatuko 2. eta 3. zenbakietan baimendutako tasa baliozkoa izan dadin, ateratzen diren plazak lan-eskaintza publiko batean sartu beharko dira. Eskaintza hori, EPOEren 70. artikuluko 2. apartatua ezarritakoaren arabera, administrazio publikoetako gobernu-organismoek onartu beharko dute, eta probintziako, autonomia-erkidegoko edo, hala badagokio, Estatuko aldizkari ofizialean argitaratu beharko da, urte bakoitza amaitu baino lehen. Baimen hori baliozkoa izan dadin, halaber, plazen deialdia probintziako, autonomia-erkidegoko edo, hala badagokio, Estatuko aldizkari ofizialean argitaratu beharko da, hiru urteko epe luzaezinean, lanpostu horiek jasotzen dituen lan-eskaintza publikoa argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita, aurreko paragrafoan ezarritako betekizunekin, EPOEren 70. artikulua 1. apartatua xedatutakoarekin bat etorritik.



Aurrekoaren ondorioz, baimendutako eskaintza kontsumituztat joko da dagozkion hautaketa-prozesuak egin ondoren, prozesu horien emaitza edozein izanik ere.

Eta 20. artikuluko horren Lau apartatuak xedatzen du ezin izango dela aldi baterako langilerik kontratatu, ez eta aldi baterako estatutupeko langilerik eta bitarteko funtzionarioarik izendatu ere, salbuespeneko kasuetan izan ezik eta premiazko beharrian atzeraezinak estaltzeko.

Bestalde, Enplegu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 70. artikuluko arabera, Enplegu Publikoaren Eskaintzaren izenburupean, langile berriak sartzearen bidez bete behar diren giza baliabideen beharrik, aurrekontu-esleipenarekin, lan-eskaintza publikoaren xede izango dira, edo langile-beharrak betetzeko antzeko kudeaketa-tresnaren baten bidez. Horrek esan nahi du konprometitutako lanpostuetarako hautaketa-prozesuetarako deialdia egin beharko dela, eta gehienez ere ehuneko hamarreko gehigarria arte, eta deialdirako gehieneko epea ezarri. Nolanahi ere, enplegu publikoaren eskaintza edo antzeko tresna hiru urteko epe luzaezinean gauzatu beharko da. Eta gehitzen du enplegu publikoaren eskaintza edo antzeko tresna hori urtero onartuko dutela administrazio publikoetako gobernu-organismoek, eta dagokion aldizkari ofizialean argitaratu beharko dela.

Bizkaiko Batzar Nagusiek onartu zuten 8/2021 FORU ARAUA, abenduaren 30ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2022rako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa, 2021eko abenduaren 31ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (251. zk.) argitaratu zena, eta 14. artikuluan arautzen duena 2022rako Enplegu Publikoaren Eskaintza, zeinak hau ezartzen baitu:

“14. artikulua.- Enplegu publikoaren eskaintza

1. Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Foru Departamentuko titularrak eta, hala badagokio, foru-erakunde autonomoetako gobernu-organismoek proposatuta, foru-aldundiak, bere Gobernu Kontseiluaren bidez, bere antolakundeko eta bere erakunde autonomoetako lan-eskaintza publikoak onartu ahal izango ditu.

2. Lehendik dauden langileekin bete ezin diren giza baliabideen beharrik, aurrekontu-izendapena dutenak, Enplegu Publikoaren Eskaintzaren xede izan daitezke”.

Era berean, adierazi behar da 2022rako Enplegu Publikoaren Eskaintza hau onartzeko arrazoi artean honako hauek daudela: arrazionaltasun administratiboa, plantilla finkatzea, enplegu-prekarietatea murriztea eta giza taldeen egonkortasuna, hori guztia eraginkortasun eta efizientzia handiagoaren mesedetan, haien motibazioa eta prestakuntza zalantzarik gabe hobetuz.

Azkenik, Enplegu Publikoaren Eskaintza administrazio-egintza bat da, zeina, Administrazioak bere burua antolatzeko dituen ahalmenen barruan sartzen bada ere, prozeduraren ikuspegitik, alde aurretik ezagutua eta negoziatua izan behar baita mahai paritario batean, Enplegatu



Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 37.1 l) artikuluaekin bat etorriz.

Erakundean ordezkariak duten sindikatuek gai horren berri izan dute eta berau aztertu ahal izan dute Negoziazio Mahaiak urriaren 26an, azaroaren 30ean eta abenduaren 14an egindako bileretan (2022ko 16., 17. eta 19. akta-zenbakiak, hurrenez hurren, gai honen aurrekariari erantzen zaizkienak), bai eta xede bera duten prestatze-jakinarazpen partikularren bidez ere. Puntu honetan, eskaintako plazen guztizko kopurua legezko mugaraino zehazteaz gain, xedeko kategoriak zehaztuko lirateke, bereziki aipatuz aurreko eskaintzak osatu izanagatik deialdi bateraturako gehituko litzaizkiokeenak. Azkenean, Erakundeko Zuzendaritzak aipatutako negoziatioaren esparruan Zerbitzu Zentralek eskatutako proposamenen zati bat ontzat eman ondoren, horiek berariaz eta aho batez adierazi zuten eskaintzaren baldintzekin ados zeudela.

Azalduenez, gai honetaz arduratzeko eskumena GUFeko Gobernu Batzordeari dagokio, Erakunde hori arautzen duten estatutuak aldatzen dituen maiatzaren 30eko 4/2001 Foru Arauaren 5. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Horregatik guztiagatik, hau sinatzen duenak Gobernu Batzordeari aurkezten dio honako

ERABAKI-PROPOSAMENA

BAKARRA- Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen (GUF) 2022ko lan-eskaintza publikoa onartzea, eranskin honetan ezartzen den moduan.

Bilbon, 2022ko abenduaren 15ean

ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARIA

Sin.: Eneko Gutiérrez Coterón

GERENTEA

Sin.: David Latxaga Ugartemendia



ERANSKINA

-I-

GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEAREN (GUFE) 2022KO ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA.

1. artikulua

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 22tik 24ra bitarteko artikuluetan; Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 70. Artikuluan; Estatuko 2022. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legearen 20. artikuluan, batetik laugarrenera bitarteko zenbakietan; eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2022. urteko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 8/2021 FORU ARAUAREN 14. artikuluan xedatzen dena betez, Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Enplegu Publikoaren Eskaintza onesten da 2022rako, erabaki honetan ezartzen den eran.

2. artikulua

1. Honako plaza hauek sartzen dira Enplegu Publikoaren Eskaintzan: hala aurrekontuko zuzkidura eduki eta deialdi-prozesu batean ez dauden plaza hutsak nola aurrekontuko zuzkidura eduki eta bitarteko langileen edo aldi baterako langileen bitartez beteta dauden plaza hutsak, baldin eta plaza horietarako deialdia oraindik eginda ez badago. Guztira, berrogeita zazpi (47) plaza dira; haietariko hogeita hamabi (32) txanda irekikoak dira, eta hamabost (15), berriz, barne-sustapenekoak. Erabaki honen eranskinean jasotzen dira plazen kuantifikazio ordenatua eta banakapena.

2.- Aurrekontu zuzkidura eduki eta hautaketa-proben deialdietan betetzen ez direnak, ekitaldi bereko hurrengo deialdietara atera ahal izango dira; baina, deialdia egiten denetik sei hilabeteko epea amaitu aurretik hasi behar dira dagozkion probak, hautaketarako ezar daitezkeen prestakuntza ikastaroak alde batera utzita.

3. artikulua

1. Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko zazpigarren xedapen gehigarria eta arloan aplikatzekoa den gainerako araudia betez, lanpostu hutsen erreserba bat egiten da, %33koa edo desgaitasun handiagoa duten pertsonekin betetzeko, baldin eta pertsona horiek hautaketa-probak gainditzen badituzte eta, dagokion unean, aplikatu beharreko legeak ezarritakoaren arabera ziurtatzen badute desgaitasun-maila hori dutela eta desgaitasun hori bateragarria dela egin beharreko lan eta eginkizunekin. Era berean, eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 59. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eskainitako plazen ehuneko 7 gordeko da desgaitasuna duten pertsonak bete ditzaten, halakotzat hartuta azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren (desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren testu bategina onartzen duena) 4. artikulua 2. zenbakian zehaztutakoak, betiere hautaketa-prozesuak



gainditzen badituzte eta desgaitasuna eta zereginak egiteko bateragarritasuna egiaztatzen badute. Plazen erreserba hori dagozkien deialdietan banatuko da.

2. Honela egingo da plazen % 7ren gutxienerako erreserba: desgaitasun intelektuala duten pertsonak beteko dute eskainitako plazen % 2 gutxienez; gainerako plazak, berriz, beste edozein desgaitasun mota dutenek beteko dituzte.

3. Desgaitasuna duten pertsonentzat erreserbatutako plazak sarrera arrunteko plaza-deialdietan sartu ahal izango dira, edo aparteko txanda batean.

4. Desgaitasuna duten pertsonak gainerako hautagaien baldintza berberetan onartuko dira GUF EK deitutako hautaketa-prozesuetan.

5. Hala eskatzen duten desgaitasuna duten pertsonentzat beharrezko denbora eta baliabideak egokituko dira hautaketa-probak egin ahal izateko, betiere horrekin proben edukia hutsaltzen ez bada edo eskatzen den maila murriztu edo gutxitzen ez bada.

6. Artikulu honen ondorioetarako, desgaitasuna duten langileak honakoak izango dira: Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren 1984ko martxoaren 8ko Aginduaren arabera egoera hori aitortuta dutenak, eta abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren arabera, organo eskudunen batek (IMSERSO, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saila edo baliokideren bat) %33ko edo gehiagoko desgaitasun maila aitortua dutenak.

7. Aurreko paragrafoetan adierazitako kasuetan, desgaitasuna duten pertsonentzat erreserbatutako plazak eskatzen dituzten hautagaiek honakoa egiaztatu beharko dute, organo eskudunek emandako ziurtagirien bidez: batetik, desgaitasun hori dutela eta, bestetik, eskatutako plazetan egin beharreko lanak eta eginkizunak egiteko gaitasuna dutela.

4. artikulua

1. Eranskinean berariaz horretarako jasotako plazak eskainiko dira barne-sustapenean, eta plaza horiek kopurua ez da kontuan hartuko baliabideen birjarpen-tasaren ondoriozko plazen gehieneko mugaren barruan. Bizkaiko Foru Aldundiko eta beraren erakunde autonomoetako lan-kontratudun langileen lan baldintzak arautzen dituen hitzarmenaren testu bateginaren 103.1 artikuluan ezarritakoarekin bat, gutxienez plazen % 33koa eta gehienez % 50koa izango da barne-sustapenean deitutako plazen erreserbaren ehunekoak.

2. Barne-sustapenerako erreserbatutako plazak betetzeko, deialdi bateratu bat egin ahal izango da sarrera arrunteko plazekin batera, edo, bestela, beste deialdi bat, txanda independente batean.

3. Barne-sustapenez sartzeko, kasu bakoitzaren deialdian ezarritako probak gainditu behar dira.

4. Barne-sustapenerako erreserbatutako plazaren bat hutsik geratzen bada, plaza horiek txanda irekiko plazei gehituko zaizkie.

5. artikulua

1. Enplegu Publikoaren Eskaintza honetan eskainitako plazen hizkuntza eskakizunak eranskinean adierazitakoak izango dira, Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeko V. tituluan xedatzen dena



eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan ezartzen dena betetzeko (aipaturiko 6/1989 Legeko 97.5 artikulua eta dekretu horretako 27. artikulua lotuz), eta kontuan hartuta enplegu-eskaintza plazak deitzeko dela eta ez zuzenean lanpostuak deitzeko, egun lanpostuen hizkuntza eskakizunak lanpostuen zerrendetan adierazita daudela eta Eusko Jaurlaritzako organo eskudunek epealdi honetan dagoeneko onartu diren lanpostuei buruz emandako txostenekin bat datozela.

2. Derrigorrezko hizkuntza eskakizuna duten plazetan, hizkuntza eskakizuna nahitaez bete behar da plazara sartzeko, eta egiaztapena deialdiaren oinarrietan zehaztutako eran egingo da.

3. Eskainitako gainerako plazetan, euskararen ezagutza merezimenduztat joko da eta, beraz, puntuazioan ehuneko bat lortzea ekarriko du. Ehuneko hori ez da inola ere hautaketa-prozesuaren gainerako probetan guztira gehienez lortu daitekeen puntuazioaren ehuneko bost baino txikiagoa izango, ezta ehuneko hogei baino handiagoa ere, honako eskala honen arabera:

- 1. HE % 5etik % 10era
- 2. HE % 5etik % 10era
- 3. HE % 11tik % 20ra
- 4. HE % 11tik % 20ra

Edozein kasutan, baremazioaren ehunekoa berdina izango da kategoria profesional bereko plaza guztietarako; horretan nagusi den hizkuntza eskakizunaren arabera ezarriko da ehuneko hori.

6. artikulua

Hautaketa-prozedurak modu arrazionalizatuan eta eraginkorrean egin daitezten, 2022. urteko enplegu publikoaren eskaintza honetako plaza batzuk metatu ahal izango dira, hala badagokio, GUF EK 2020ko eta 2021eko urteetako enplegu publikoaren eskaintzetan eskainitako antzeko plazekin, egiten diren deialdi berezietan sartuta; beraz, baliteke enplegu publikoaren eskaintza guztiak aldi batera gauzatzea, hautaketa-prozesuaren deialdi bakar baten bidez; deialdi horretan eskaintza horietako plaza huts guztiak eskainiko dira.

AZKEN XEDAPENA

Erabaki honek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik izango ditu ondorioak, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeari kalterik egin gabe.



-II-

BIZKAIKO GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEAREN (GUF) 2022KO ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA

Plaza kodea	Plazaren izena	Lanpostu hutsen kopurua	Txanda irekia		Barne-sustapena	
			Derrigorrezko HE	Derrigorrezkoa ez den HE	Derrigorrezko HE	Derrigorrezkoa ez den HE
110	GOI-MAILAKO TEKNIKARIA	1	1			
210	EKONOMIALARIA	1	1			
410	PSIKOLOGOA	1			1	
220	TEKNIKARI ERTAINA	2	2			
360	BILTEGIKO ARDURADUNA	1	1			
421	GIZARTE-HEZITZAILEA	6	3		3	
436	GIZARTE-LANGILEA	6	3		2	1
444	GIZARTERATZEKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA	4	2		2	
515	FISIOTERAPEUTA	3	3			
520	ERIZAINA	3	2		1	
645	ZERBITZU TEKNIKOETAKO OFIZIALA	1				1
710	SUKALDARI-ZERBITZARIA	7	1	3		3
720	ZERBITZARI-GARBITZAILEA	5	3	2		
810	ADMINISTRARIA	6	5		1	
	TOTAL	47	27	5	10	5

(*) *Desgaitasuna duten pertsonen betetzeko diren plaza hutsen erreserban, hiru (3) plaza sartuko dira; plaza horiek – hala egin behar bada– dagozkien deialdien artean banatuko dira.*